2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

SAILAREN MEMORIA

I. MEMORIA

Aurrekontu programa honen helburua lortzeko honako jarduketa hauek ezarri ziren:

1. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazioa. Planaren prozesua, emaitzak eta eragina ebaluatuko dira.
2. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana gertatzea eta onartzea.
3. Genero ikuspegia prozedura komunetan eta zehazkiago foru administrazio osoaren kontratazioan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan sartzeko prozesua sustatzen, dinamizatzen eta kontrolatzen jarraitzea.
4. Foru administrazio osoari aholkularitza eta laguntza ematea euren programetan genero ikuspegia sartzeko prozesuan.
5. Berdintasun politikak sustatu eta bultzatzea 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, zuzenean eta Berdinbidean-en bitartez. Zerbitzu hori dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua da, tamaina txikiagoko udaletan berdintasun politikak abian jartzeko laguntza eta bultzada emateko.
6. Udalerri txikietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eredu eraginkor eta jasangarria diseinatzea.
7. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua indartzea, berdintasuna bultzatzeko bilbearekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko esparru gisa.
8. Berdintasunean eta balioen aldaketan aurrera egiteko sentsibilizazio kanpainak bultzatzea eta laguntzea, besteak beste, indarkeriari aurrea hartzeko Beldurbarik kanpaina. Horretarako egunik adierazgarrienak: martxoaren 8a eta azaroaren 25a.

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario se concretaba en las siguientes actuaciones:

1. Evaluación del III Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava. Se realizará una evaluación de proceso, de resultados y del impacto del Plan.
2. Elaboración y aprobación del IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava.
3. Continuación de la promoción, dinamización y seguimiento del proceso para la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes y más específicamente en la contratación, subvenciones y convenios del conjunto de la administración foral.
4. Asesoramiento y acompañamiento al conjunto de la administración foral en su proceso de incorporación de la perspectiva de género en sus programas.
5. Promoción, e impulso de las políticas de igualdad en los municipios menores de 5.000 habitantes directamente y a través de Berdinbidean, Servicio de dinamización y asesoramiento para el impulso y acompañamiento para la puesta en marcha de las políticas de igualdad en Ayuntamientos de menor tamaño.
6. Diseño de un modelo eficaz y sostenible para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en los municipios de menor tamaño.
7. Fortalecimiento del Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava, como espacio de interlocución y deliberación con el entramado para el impulso de la igualdad.
8. Impulso y apoyo a campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores, y entre otras, la campaña Beldurbarik para la prevención de la violencia y los días más señalados al efecto, como son: 8 de marzo y 25 de noviembre.

9. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egia bihurtzeko ekintza pribatuak bultzatzea, eta horretarako, dirulaguntzen deialdien bidez udalei, kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei baliabideak ematea.

10. Araban indarkeria matxistaren adierazpen guztiei buruz sentsibilizatzeko eta haiek prebenitzeko programa berezi bat prestatzearen esparruan, lehengo faseari, diagnostikoari, helduko zaio, sentsibilizazio eta prebentzio programaren ildo nagusiak zirriborratu eta sentsibilizazio ekitaldi publiko bat egingo da.

11. Arabako ahalduntze eskola, emakumeen norbanako eta taldeko genero kontzientzia hartzeko, elkarrekin ikasteko eta emakumeen parte-hartze sozio-politikorako topagune gisa. Hasieratik proiektua era parte-hartzailean egingo da, udalekin eta Berdintasunerako Kontseiluarekin.

Aurrekontu programa honen helburua lortzeko honako jarduketa hauek ezarri ziren:

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Azkenean gauzatu diren jarduketak hauexek dira:

1. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazioa. Planaren prozesua, emaitzak eta eragina ebaluatuko dira.

2016an Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazioa egin da. Horretarako, Berdintasun Zerbitzuaren eta kanpoko kontratazio baten arteko baterako lan prozesu bat ezarri zen.

Ikuspegi bi uztartuz egin zen, ikuspegi **sistemikoa** –nola lotzen diren helburuak, baliabideak, prozesuak eta emaitzak testuinguru jakin batean- eta ikuspegi **pluralista** –*stakeholder* guztien ikuspuntuak sartzea bermatzen du-. Erabilitako hurbilketa batez ere kualitatiboa da, erabilitako teknika eta tresnei dagokienez.

9. Fomento de acciones privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.

10. En el marco de la elaboración de un programa especial de sensibilización y prevención contra la violencia machista en Álava en todas sus manifestaciones, se abordará la primera fase de diagnóstico, se esbozarán las líneas maestras del programa de sensibilización y prevención y se realizará un acto de sensibilización público.

11. Escuela de empoderamiento de Araba, como espacio de encuentro para la toma de conciencia de género, individual y colectiva de las mujeres, para el aprendizaje compartido y la participación socio-política de las mujeres. La elaboración del proyecto desde el origen se realizará de forma participativa, con los ayuntamientos y el Consejo para la Igualdad.

El objetivo de este Programa Presupuestario se concretaba en las siguientes actuaciones:

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Las actuaciones finalmente desarrolladas han sido:

1. Evaluación del III Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava. Se realizará una evaluación de proceso, de resultados y del impacto del Plan.

A lo largo del año 2016 se ha realizado la Evaluación del III Plan Foral para la Igualdad. Para ello, se estableció un proceso de trabajo conjunto entre el Servicio de Igualdad y una contratación externa.

Se realizó desde una combinación de dos enfoques, **sistémico** – cómo se vinculan objetivos, recursos, procesos y resultados en un contexto determinado- y **pluralista** –garantiza la incorporación de los puntos de vista de los diferentes *stakeholders*-, utilizando una aproximación fundamentalmente cualitativa en lo que respecta a las técnicas y herramientas empleadas.

Ebaluazio prozesuan hauek parte hartu zuten:

- ALHko emakume elkarteek eta berdintasunerako elkarteek
- AFAko teknikariek
- AFAko politikariek
- Lurraldeko kuadrilla eta udaletako politikariek
- Lurraldeko kuadrilla eta udaletako teknikariek

Ebaluazioaren ondorio eta gomendio gehienak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Planean sartu ziren.

2. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana gertatzea eta onartzea.

Berdintasunerako III. Foru Plana ebaluatu ondoren, IV. Plana egiteko lanei ekin zaie. Prozesu orokorra lan bik biltzen dute:

- "Arabako emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikei buruzko diagnostikoa" egiteak. Hauek aztertzen dira han: EAEk ezarritako gidalerroak, foru planen ibilbidea, udal handi (Gasteiz) eta ertainetako (Laudio eta Amurrio) politikak, eta Arabako berezitasunari buruzko berariazko atal bat, kuadrilla, udal eta kontzejuetako banaketa administratiboari dagokionez.

- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2016-2020 IV. Foru Plana gertatzeak. Plana prozesu parte-hartzaile baten bidez gertatu da, eta programa esparru bat eskaintzen du Arabako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko. Hauek biltzen ditu: Plana inspiratu duten printzipioak, helburuak, 4 jarduketa ardatz – gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxistak eta zaintzen kultura eta antolamendu berri bat-, 12 ildo estrategiko eta Arabako Lurralde Historikoan berdintasuna egia

En el proceso de evaluación tomaron parte:

- asociaciones de mujeres y asociaciones para la igualdad del THA
- personal técnico de la DFA
- personal político de la DFA
- personal político de las Cuadrillas y los ayuntamientos del territorio
- personal técnico de las Cuadrillas y los ayuntamientos del territorio

Las conclusiones y recomendaciones de la evaluación fueron en su mayor parte incorporadas al IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres.

2. Elaboración y aprobación del IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava.

Tras la evaluación del III Plan Foral de Igualdad, se han acometido los trabajos dirigidos a la elaboración del IV Plan. Dos han sido los trabajos que engloban el proceso general:

- Elaboración del "Diagnóstico sobre las políticas de igualdad de oportunidades de mujeres y hombres en Álava". En él, se analizan las directrices marcadas para la CAE, el recorrido de los planes forales, las políticas en los ayuntamientos de mayor tamaño (Vitoria-Gasteiz) medio (Laudio y Amurrio), así como un apartado específico destinado a la singularidad alavesa, en cuanto a su distribución administrativa en cuadrillas, ayuntamientos y concejos.

- Elaboración del IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres de Álava 2016-2020. El plan, elaborado a través de un proceso participativo, ofrece el marco programático para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Alava. Recoge los principios que inspiran el Plan, los objetivos, 4 ejes de actuación - Buen Gobierno, Empoderamiento de las mujeres, violencias contra las mujeres y otras violencias machistas y una nueva cultura y organización de los cuidados-, 12 líneas estratégicas y 80 medidas de actuación para el avance en la consecución de

bihurtzen aurrera egiteko 80 jarduketa neurri.

Halaber, kudeaketa eredua jasotzen du. Koordinazio egitura malguak proposatu eta programazio, jarraipen eta ebaluazio mekanismoak identifikatzen ditu eredu horrek.

3. Genero ikuspegia prozedura komunetan eta zehazkiago foru administrazio osoaren kontratazioan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan sartzeko prozesua sustatzen, dinamizatzen eta kontrolatzen jarraitzea.

2015eko amaieratik eta 2016ko lehen seihilekoan AFAn arlo horretan egindako lana aztertu da. Halaber, Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluaziotik, lan prozesu horren balorazioari heldu zaio eta 2016ko abenduaren 20an onartutako berdintasunerako IV. Foru Planean horri buruzko neurriak sartzea ahalbidetu du horrek.

2016ko amaieratik, prestakuntza ekintzak egin dira, alde batetik, zuzendaritzentzat, berdintasunaren arloa bultzada politikoaren arduradunak diren aldetik eta, bestetik, zerbitzu burutzentzat, genero berdintasunaren printzipioa politika eta prozeduretan sartzearen arloan. Saio horiek abenduaren 13 eta 14an egin ziren eta 7 zuzendaritzak eta 25 zerbitzu burutzak parte hartu zuten.

4. Foru administrazio osoari aholkularitza eta laguntza ematea euren programetan genero ikuspegia sartzeko prozesuan.

2016an berdintasunaren arloko aholkularitza ematen jarraitu da, bai AFAren barruko mailan bai kanpoko mailan.

Aholkularitza teknikoa eman zaie zenbait sailari – nekazaritza, hirigintza, ingurumena, sustapen ekonomikoa-, batez ere prozeduretan berdintasuneko klausulak sartzeko.

Bestalde, beste zerbitzu eta sailekiko lankidetzak hasi eta/edo finkatu dira haien politiketan genero ikuspegia sartzeko:

la igualdad en el Territorio Histórico de Álava.

Incluye así mismo el modelo de gestión que propone estructuras flexibles de coordinación e identifica los mecanismos de programación, seguimiento y evaluación.

3. Continuación de la promoción, dinamización y seguimiento del proceso para la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes y más específicamente en la contratación, subvenciones y convenios del conjunto de la administración foral.

Desde finales del año 2015 y durante el primer semestre de 2016 se ha analizado el trabajo realizado en la DFA en esta materia. Además, desde la evaluación del III Plan Foral para la Igualdad, se ha abordado la valoración de este proceso de trabajo y ha permitido incluir medidas al respecto en el IV Plan Foral para la igualdad aprobado el 20 de diciembre de 2016.

A finales de 2016, se han realizado acciones formativas dirigidas por un lado a las direcciones, como responsables del impulso político en materia de igualdad y por otro, a las jefaturas del servicio, en materia de incorporación del principio de igualdad de género en políticas y procedimientos. Dichas sesiones tuvieron lugar los días 13 y 14 de diciembre, participando 7 direcciones y 25 jefaturas de servicio.

4. Asesoramiento y acompañamiento al conjunto de la administración foral en su proceso de incorporación de la perspectiva de género en sus programas.

A lo largo del 2016 se ha continuado con el asesoramiento en materia de igualdad, tanto a nivel interno de la DFA como a nivel externo.

Se han realizado asesoramientos a nivel técnico a diferentes departamentos, - agricultura, urbanismo, medio ambiente, promoción económica- fundamentalmente para la inclusión de cláusulas de igualdad en los procedimientos.

Por otro lado se han iniciado y/o consolidado colaboraciones con otros servicios y departamentos para la inclusión de la perspectiva de género en sus políticas:

Kirol Zerbitzuarekin Arabako eskola kirolaren arloan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

Gazteriaren Foru Erakundearekin 12-18 urteko nerabe eta gazteen artean genero indarkeriaren aurka sentsibilizatu eta kontzientziatzeko.

Ogasun Sailarekin aurrekontuan berdintasun printzipioa sartzeko.

5. Berdintasun politikak sustatu eta bultzatzea 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, zuzenean eta Berdinbidean-en bitartez. Zerbitzu hori dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua da, tamaina txikiagoko udaletan berdintasun politikak abian jartzeko laguntza eta bultzada emateko.

Berdinbidean zerbitzuak helburua hauek dauzka: Arabako udalerri txikietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak abiarazten edo sendotzen laguntzea; udalei eta kuadrillei jarduerak batera egiten eta euren esperientziak elkarri azaltzen laguntzea; udalen eta kuadrillen politikak koordinatzea Aldundiaren berdintasunerako politikekin.

2016an Eudel eta Emakunderen laguntza jaso da berriz ere.

Urte horretan Berdinbidean zerbitzua birbideratu egin da, 6 kuadrilletako berdintasun teknikariei ahlokularitza eta laguntza eman, eta berdintasun politikak bultzatu eta ezartzeko.

6. Udalerri txikietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eredu eraginkor eta jasangarria diseinatzea.

4/2005 Legeak lurraldeko kuadrilletan toki administrazioei berdintasuneko administrazio unitateak hornitzea ezartzen du eskumen gisa. Hala, Lurralde Orekaren Sailarekin batera lan eginez eta dirulaguntzak deituz, berdintasuneko egiturak hornitu zitzaizkien kuadrilla guztiei. Azaroan eginda zeuden berdintasuneko teknikarien kontratazioak. Mugarria izan da hori berdintasun

Con el Servicio de Deportes para promover la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito del deporte escolar de Alava.

Con el Instituto Foral de la Juventud con el objeto de sensibilizar y concienciar contra la violencia de género en adolescentes y jóvenes entre los 12 y 18 años.

Con el departamento de Hacienda para la incorporación del principio de igualdad en el Presupuesto.

5. Promoción, e impulso de las políticas de igualdad en los municipios menores de 5.000 habitantes directamente y a través de Berdinbidean, Servicio de dinamización y asesoramiento para el impulso y acompañamiento para la puesta en marcha de las políticas de igualdad en Ayuntamientos de menor tamaño.

El Servicio Berdinbidean tiene como objetivos apoyar la puesta en marcha o consolidación de políticas dirigidas a promover la igualdad de mujeres y hombres en los municipios de menor tamaño así como favorecer el acercamiento, intercambio de experiencias y realización de actividades conjuntas entre municipios y cuadrillas y coordinar las acciones de municipios y cuadrillas con las políticas de igualdad de la Diputación.

En el año 2016 ha seguido contando con apoyo de Eudel y Emakunde.

Ha sido un año de reorientación del Servicio Berdinbidean hacia el asesoramiento y acompañamiento a las técnicas de igualdad de las 6 cuadrillas, en el impulso e implementación de las políticas de igualdad.

6. Diseño de un modelo eficaz y sostenible para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en los municipios de menor tamaño.

La Ley 4/2005 establece como competencia de las administraciones locales la dotación de unidades administrativas de igualdad en las cuadrillas del territorio. Así, mediante la colaboración con el Departamento de Equilibrio Territorial y a través de convocatoria de subvenciones, se dotó a todas las cuadrillas de estructuras de igualdad. En el mes de noviembre ya estaban realizadas las

politikak garatzeko eta hark Arabako lurralde osoan aurrera egiteko.

contrataciones de personal técnico en igualdad, lo cual ha constituido un hito para el desarrollo de la política de igualdad y el avance de la misma en todo el territorio alavés.

7. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua indartzea, berdintasuna bultzatzeko bilbearekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko esparru gisa

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua hiru aldiz bildu da 2016an, otsailean, apirilean eta ekainean.

III. Planaren ebaluazio prozesuari eta IV. Planaren edukiak gertatu eta balioztatzeari, nahiz Laia Eskolaren aurkezpenari lotutako saioak izan dira.

7. Fortalecimiento del Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava, como espacio de interlocución y deliberación con el entramado para el impulso de la igualdad

El Consejo para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava se ha reunido en tres ocasiones a lo largo de 2016, en los meses de febrero, abril y junio.

Han sido sesiones relacionadas con el proceso de Evaluación del III Plan y con la elaboración y validación de contenidos del IV Plan así como con la presentación de Laia Eskola.

8. Berdintasunean eta balioen aldaketan aurrera egiteko sentsibilizazio kanpainak bultzatzea eta laguntzea, besteak beste, indarkeriari aurrea hartzeko Beldurbarik kanpaina. Horretarako egunik adierazgarrienak: martxoaren 8a eta azaroaren 25a.

Arabako Foru Aldundiak hitzarmena sinatzen du Emakunderekin genero indarkeriaren prebentzio eta sentsibilizazio programa ezartzeko. Programa hori, Beldur Barik, erakundearteko lankidetza zabalarekin egiten da. Helburua emakume gazteen ahalduntzea eta gazte guztiek jarrera matxistak desagerrarazten parte hartzea bultzatzea da.

2016ko programan, Gasteiz, Laudio eta Amurrio udaletako 53 lan aurkeztu dira Araban.

Emakumeen Nazioarteko Egunari dagokionez (martxoak 8), erakunde ekitaldi bat egin zuen AFAk Artiumen, oraingoan norberaren eta taldearen ahalduntzearen helburuarekin. Arabako geografiako emakumeek eta emakumeen elkarteek parte hartu zuten ekitaldian. Ekitaldi honen leloa “Emakumeok, bai ahaldun / Nosotras, mujeres. Creando poder” izan zen.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean (azaroak 25), Aldundiaren Gobernu Kontseiluak erakunde adierazpen bat

8. Impulso y apoyo a campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores, y entre otras, la campaña Beldurbarik para la prevención de la violencia y los días más señalados al efecto, como son: 8 de marzo y 25 de noviembre.

La Diputación Foral de Álava viene firmando un convenio con Emakunde para la implementación del programa de prevención y sensibilización en violencia de género. Este programa, Beldur Barik, se realiza con una amplia colaboración interinstitucional. El objetivo es impulsar el empoderamiento de las jóvenes y la participación de la juventud en general en la erradicación de actitudes machistas.

Durante el programa de 2016, en Álava se han presentado 53 trabajos de los municipios de Vitoria-Gasteiz, Llodio y Amurrio.

Respecto al Día Internacional de las Mujeres, 8 de marzo, la DFA realizó un acto institucional en el Artium, en esta ocasión con el objetivo del empoderamiento personal y colectivo en el que participaron mujeres y asociaciones de mujeres de la geografía alavesa. El lema en esta edición fue “Emakumeok, bai ahaldun / Nosotras, mujeres. Creando poder”.

El Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres, 25 de noviembre, el Consejo de Gobierno de la Diputación aprobó una declaración

onartu eta elkarretaratze isila deitu zuen Aldundiaren Jauregiaren eskaileretan, erakundeko langile guztientzat nahiz herritar guztientzat. Bestalde, laguntza eman zaie lurraldeko udalen eta kuadrillen ekimenei, sentsibilizazioko materiala (pankartak, txapak, kartelak,...) bidaliz.

institucional y convocó una concentración silenciosa en la escalinata de Palacio de la Diputación dirigida a todo el personal de la institución, así como a la ciudadanía en general. Por otro lado, se han apoyado las iniciativas de municipios y cuadrillas del territorio, a través de envío de material de sensibilización (pancartas, chapas, carteles,…).

9. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egia bihurtzeko ekintza pribatuak bultzatzea, eta horretarako, dirulaguntzen deialdien bidez udalei, kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei baliabideak ematea.

- *Laguntzak irabazteko udal eta kuadrillentzat Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak egiteko:*

Deialdi horren bidez 15 udal eta 3 kuadrillatako 18 proiektuek jaso dute dirulaguntza guztira, 90.000,00 euro guztira.

Lana eta bizitza bateratzea eta erantzunkidetasuna sustatzeko -% 9-; indarkeriarik gabeko harremanak sustatzeko -% 20-; gobernantzan genero ikuspegia sartzeko -% 32-; eta emakumeak ahalduntzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko -% 39- jarduerak dira.

- *Laguntzak irabazteko asmorik gabeko elkarte eta entitateentzat Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak egiteko:*

Deialdi horren bidez irabazi asmorik gabeko 35 elkarte eta entitateri eman zaie dirulaguntza guztira, 201.189,63 euro guztira. Diruz lagundutako jarduketak, batez ere, sentsibilizaziokoak, prestakuntzakoak eta egun gogoangarriak (martxoaren 8a eta azaroaren 25a) ospatzekoak izan dira.

Diruz lagundutako jarduera gehienak

9. Fomento de acciones privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.

- *Ayudas dirigidas a Ayuntamientos y Cuadrillas para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres en el Territorio Histórico de Álava:*

A través de esta convocatoria se han subvencionado un total de 18 proyectos de 15 municipios y 3 Cuadrillas por un total de 90.000,00 €.

Se ha trata de actividades dirigidas al fomento de la conciliación y corresponsabilidad - un 9%- al fomento de relaciones sin violencia -20%-; a incorporar la perspectiva de género en la gobernanza -32%-; y al empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres un 39%.

- *Ayudas dirigidas a Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres en el Territorio Histórico de Álava:*

A través de esta convocatoria se han subvencionado un total de 35 asociaciones y entidades sin ánimo de lucro por un total de 201.189,63 €. Las actuaciones financiadas han sido principalmente de sensibilización, formación y conmemoraciones de días como el 8 de marzo y el 25 de noviembre.

Las actuaciones financiadas han sido

sentsibilizaziokoak, prestakuntzakoak eta egun gogoangarriak (martxoaren 8a eta azaroaren 25a) ospatzeko izan dira. Jarduketa gehienak ahalduntzearen ardatzean kokatu dira (% 75) eta ondoren indarkeriaren ardatzean (% 20).

10. Araban indarkeria matxistaren adierazpen guztiei buruz sentsibilizatzeko eta haiek prebenitzeko programa berezi bat prestatzearen esparruan, lehengo faseari, diagnostikoari, helduko zaio, sentsibilizazio eta prebentzio programaren ildo nagusiak zirriborratu eta sentsibilizazio ekitaldi publiko bat egingo da.

Indarkeria matxistaren diagnostikoak egin dira Añana, Aiara eta Gorbeialdeko kuadrilletan.

Helburua indarkeria matxistaren arloko politika publikoak hobetzea da.

Halaber, “A golpe de palabra / Hitz kolpez” kanpaina gauzatu da, nerabeen eta gazteen artean indarkeria matxistaren arloan prebenitu eta sentsibilizatzeko helburuz. Kanpaina horrek antzerkia darabil sentsibilizazioko tresna berritzaile gisa; ondoren ikasleen artean eztabaidatzeko esparru bat eta gazteen arteko indarkeriako aditu bat dakartza. 44 jarduketa egin dira lurraldeko 15 ikastetxetan.

11. Arabako ahalduntze eskola, emakumeen norbanako eta taldeko genero kontzientzia hartzeko, elkarrekin ikasteko eta emakumeen parte-hartze sozio-politikorako topagune gisa. Hasieratik proiektua era parte-hartzailean egingo da, udalekin eta Berdintasunerako Kontseiluarekin.

Eskolaren izena, "Laia", nekazarien tresna horrena bera da, lurra iraultzeko edo goldatzeko baliatzen denarena. Laia eskolarekin identifikatzen da, biek ateratzen dituztelako gizarte bidegabea, baztertzailea eta desorekatua egotea ahalbidetzen duten zimendu eta oztopo guztiak. LAIA Eskola 2016an hasi zen, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen ahalduntze prozesuei laguntzeko helburuz, haien parte-hartze sozio-politikoa indartzeko.

principalmente de formación, sensibilización, y conmemoraciones de días clave como el 8 de marzo y el 25 de noviembre. La gran mayoría de las actuaciones se han enmarcado en el eje de empoderamiento (75%) seguido del de violencia (20%).

10. En el marco de la elaboración de un programa especial de sensibilización y prevención contra la violencia machista en Álava en todas sus manifestaciones, se abordará la primera fase de diagnóstico, se esbozarán las líneas maestras del programa de sensibilización y prevención y se realizará un acto de sensibilización público.

Se han realizado los diagnósticos de violencia machista en las cuadrillas de Añana, Ayala y Gorbeialdea.

El objetivo es la mejora de las políticas públicas en materia de violencia machista.

Asimismo, se ha ejecutado la campaña “A golpe de palabra / Hitz kolpez”, con el objeto de prevenir y sensibilizar en materia de violencia machista entre adolescentes y jóvenes. Esta campaña aporta el teatro como herramienta innovadora en la sensibilización, acompañada por un espacio para el debate posterior entre el alumnado y una experta en violencia en la juventud. Se han realizado 44 actuaciones en 15 centros de la provincia.

11. Escuela de empoderamiento de Araba, como espacio de encuentro para la toma de conciencia de género, individual y colectiva de las mujeres, para el aprendizaje compartido y la participación socio-política de las mujeres. La elaboración del proyecto desde el origen se realizará de forma participativa, con los ayuntamientos y el Consejo para la Igualdad.

La Escuela toma su nombre, “Laia”, del instrumento agrícola utilizado para remover la tierra. La laia se identifica con la Escuela en que ambas remueven todos los cimientos y obstáculos que permiten la existencia de una sociedad injusta, discriminatoria y desigual., LAIA Eskola se inicia en 2016 con el objetivo de acompañar procesos de empoderamiento de las mujeres del Territorio Histórico de Álava que fortalezcan su participación socio-política.

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

2016an era parte-hartzailean definitu zen eskola proiektua, eta 2016ko irailaren 30an ekin zion bere bideari, Arabako Lautadako Iruraiz-Gaunako Aziluko gizarte zentroan.

LAIA Eskolak ez dauka egoitza jakinik; Lautadako Kuadrillak eta udalek dituzten lokal eta baliabideak erabiltzen ditu bere jardueretarako, izan ere ahalik eta gehien hurbildu nahi ditu bere proiektuak lautadako herrietara eta herritarrengana.

Esparru birtuala dauka Laia Eskolak www.laiaeskola.eus webaren bitartez.

Oro har, ondo lortu da proposatutako helburuak betetzea, memoria honetan zehar azaldu den bezala.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

En 2016 se define el proyecto de escuela de manera participativa, y comienza su andadura el 30 de septiembre de 2016, en el centro social de Azilu de Iruraiz-Gauna, de la Llanada Alavesa.

LAIA Eskola no tiene una sede o ubicación física determinada sino que realiza sus actividades en los locales y recursos que tiene la Cuadrilla y los ayuntamientos de la Llanada, con el fin de acercar lo más posible a los núcleos de población y a la ciudadanía de cada una de las localidades sus proyectos.

Laia Eskola tiene su espacio virtual a través de la web www.laiaeskola.eus

En conjunto, se ha logrado de forma satisfactoria el cumplimiento de los objetivos propuestos y tal como se han ido describiendo a lo largo de esta memoria.